

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren 118/2020 Foru Agindua, ekainaren 2koa; honen bidez, "Arabako haranetako ureztapenak hobetu eta modernizatzeko Proiektua (3. eremua. Zadorra ibaia): Armiñón, Estavillo eta Ribagudako eremua Zadorra ibaitik eta Riorrojo ibaiaren instalazioetatik (Araba) ureztatzea" proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Txostena eman da

"Arabako haranetako ureztapenak hobetu eta modernizatzeko Proiektua (3. eremua. Zadorra ibaia): Armiñón, Estavillo eta Ribaguda eremua Zadorra ibaitik eta Riorrojo ibaiaren instalazioetatik (Araba) ureztatzea" proiektuak ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuaren prozedura bete behar du, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututakoa. Hain zuzen ere, proiektua zazpigarren artikuluan deskribatutako kasuen artean dago, "Natura 2000 Sarea" espazioaren barruan ingurumen sentsibilitate bereziko zona bati eragiten baitio, Zadorra ibaiaren KBE eremuari (ES2110010) dagokionez; horrez gain, aipatutako legearen II. eranskineko I. taldeko C apartatua bildutako proiektuetako kasuen artean ere badago, 100 ha-tik gorako ureztapena modernizatzeko proiektua baita. Horrez gain, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra dela bide, ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztua ere egin behar du (I. eranskina, C apartatua, 3.5 epigrafea).

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2019ko azaroaren 18an, Nekazaritza Zerbitzuak bidalitako idazki bat jaso zuen, inpaktua ebaluatzeko prozedura izapidetzen hasteko idazkia, hain zuzen, eta, horri erantsita, 21/2013 Legearen 45. artikulua eskatzen duen ingurumen agiria ere jaso zuen.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2020ko maiatzaren 27an emandako ingurumen inpaktuaren txostenean ezarritako ebaluazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat dator 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:

3. eremua – Zadorra ibaiko ureztapen proiektuak banaketa sare bat aurreikusi du Armiñón, Estavillo eta Ribaguda herrietako lur landuetan, 531 ha-ko azalera batean, "Puente Nuevo" izeneko ureztatzaileen elkarteari dagokiona.

Ureztapen eraldaketa zabalago batean kokatutako proiektua da.

Orain izapidetu eta ingurumen ebaluazioa jasotzen duen proiektu hau behin betiko 112/1999 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 95. zk., 1999ko abuztuaren 13koa) onartu zen Arabako Haranetako Eremua Lur Ureztatu Bihurtzeko Plan Orokorren eremuan kokatzen da. Lehenago, eremua lur ureztatu bihurtzea Arabako Lurralde Historikoarentzat intereseko izendatu zen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 20ko 53/1990 Foru Dekretuaren bidez.

Lur Ureztatu Bihurtzeko Plan Orokorrak zortzi eremu edo jarduketa unitatetan banantzen du Arabako Haranetako Eskualdea:

- 1. eremua: Goi Baia.
- 2. eremua: Behe Baia.
- 3. eremua: Zadorra ibaia.

- 4. eremua: Goi Omecillo.
- 5. eremua: Erdi eta Behe Omecillo.
- 6. eremua: Ebro.
- 7. eremua: Tumecillo.
- 8. eremua: Tumecillotik Baiara goi mailak.

Oharrak.

— Azkenik 8. eremua ez zen kontuan hartu eta gainerako zazpi eremuetako ureztapenaren hobekuntza zehazten duen proiektu orokorretik ezabatu zen.

— 4. eremua berariazko proiektu baten bidez garatu zen. 2006ko otsailaren 8an Kutsadura eta Klima Aldaketa Prebenitzeko Idazkaritza Nagusiak ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zuen (BOE, 2006ko martxoaren 13an). 4. eremuko obrak eginda daude.

“Arabako Haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektua” Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta “Aguas de la Cuenca del Ebro, S. A.”k (ACUAES) sustatu zuten eta UTE SERS-FULCRUMek idatzi zuen, eta ingurumen inpaktuaren ohiko ebaluazioko prozedura igaro zuen. Ingurumen organoa Trantsizio Ekologikorako Ministerioa da (Euskal Autonomia Erkidegoari eta Gaztela eta Leongoari eragiten die). Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren Biodibertsitate eta Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko azaroaren 13ko Ebazpenaren bidez (BOE, 2019ko urtarrilaren 17an), “Arabako Haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektua”ren ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zen.

3. eremua ureztatzea: Zadorra ibaia (ingurumen ebaluazioaren xede den proiektua).

Gaur egun, ureztatzaileen elkarteak, Zadorra ibaiaren ur emakida onartua duenak, ez dauka ureztatzea finketan banatzeko banaketa sistema finkorik; hala, urtero ureztatzeko tutua instalatzen du, airetik, Zadorra ibaiaren hargunetik ureztatu beharreko lurzatietara arte.

Sustatzaileak azaldu duenez, oso sistema neketsua da, ez da eraginkorra eta instalatzeko eta erabiltzeko zailtasun ugari eragiten ditu. Sistema horrek, gainera, Zadorra ibaiko KBEn ingurumen inpaktu nabarmenak eragiten ditu. Planteatutako proiektuarekin harguneari eutsi egingo zaio, indarrean eta legeztatua dagoelako, baina baldintza hobeetan ezarritako puntu finko batean ezarriko da, eta hargune horrekiko mendekotasuna murriztu egingo da, orain Riorrojoko ur pilatuak ere baliatuko baitira.

Ureztapenean eraginkortasuna areagotzeko eta dauden baliabideak neurri handiagoan baliatu ahal izateko esku hartzeko zenbait aukera planteatu dira, eta honako jarduketa hauek biltzen dituen hautatuko da aukera egokiena dela iritzita:

— Zadorrako gaur egungo harguneari eustea emakidan indarrean dauden baldintzekin. Hargunea “El Barrancal” urtegitik iritsitako hornidurarekin uztartzea, eta, horretarako, Aguas de la Cuenca del Ebro enpresak (ACUAES) proiektatutako banaketa sarea eraberritzea, eskuragarri dauden baliabide hidrikoetara egokitzeak ureztapenak hobetzeko proiektuan, Barron urtegia kontuan hartu gabe (Arabako haranetako ureztapen orokorraren proiektuan aurrerikusitako irtenbidea, egin gabe dagoena).

— Gaur egungoak baino (aire bidezkoa) diametro handiagoko banaketa sarea izatea, lurzati bakoitzaren ureztapen emaria areagotuz, hargunean baimendutako emaria areagotu gabe.

Jasotako dokumentazioarekin bat etorritik, guztira 21.765 metroko tutua jartzea planteatu da. Ahal den neurrian, existitzen diren bide eta lurzati mugetatik jartzeko irizpidea jarraitu da trazadurari dagokionez; alde batetik, zenbait lurzati hornituko dituen 20 l/seg-ko ur hargune mota aurreikusi da; batez besteko azalera 7 ha bakoitzeko 1 ur hargunekoa da, eta horrek ureztapenaren eraginkortasuna hobetzen du.

Tutu berria PVCkoa izango da, eta 200 eta 400 mm arteko diametroa izango du (200/250/315/400); zangan eraikiko da (ardatzaren inguruan 8 m-ko gehienezko okupazioa aurreikusi da), salbu eta trenbidea, errepideak eta Zadorra ibaia gurutzatzean; kasu horietan lur azpiko zulo horizontala-ekin egingo da (hinka).

Proiektuaren jarduketa nagusien deskribapena:

Lurren mugimendua zangetan: laborantza finketan zangak egitean landare lurraren goiko geruza kendu eta ondoren berriz jartzea proiektatu da; batez beste 40 cm-ko lodiera duela aurreikusten da, eta lokarri independente batekin bilduko da, zulatzean ateratzeko gainerako materialetik modu berezian. Bilketa zona horiek nekazaritzako lurretan jarriko dira, eta ez dira inoiz jarriko Natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko apirilaren 13ko 42/2007 Legean aipatutako habitatetan (irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatutakoa), ezta emarietatik gertuko lurretan edo drainatzea horietarantz egin dezaketen eremuetan ere.

Ureztapen tutua eta pieza bereziak: Puntu altuetan 50 mm-ko diametroko bentosak proiektatu dira, funtzio hirukoitzarekin. Hustubideak hodien beheko puntuetan planteatu dira.

Guztira, sare guztian 75 ur hargune ezarri dira, 1,00 m-ko diametroa daukan hormigoizko tutu batek osatutako kutxatila batean, metalezko taparekin eta itxitura giltzarrapoarekin.

Fabrikako obrak eta bestelako eraikuntzak: sekzionamenduko balbulen kutxatila, ur harguneak, hustubideak eta bentosak hoditerian aurrefabrikatuak dira, HM-20 hormigoizko tutu batek osatutakoak, 1 metrokoa barne diametroan eta 2 metroko altuerarekin; 10 cm-ko lodiera daukaten paretak ditu, zola eta metalezko tapa, 4 mm-ko lodierarekin galvanizatua; zangan bertan hustubidea dago edo PEAD hustubideko tutuarekin, 50 mm-ko diametroa duena.

Azkenik, eta aski xehetasun eman ez bada ere, zenbait egitura iraunkor aurreikusi dira, besteak beste, drainatze egiturak eta balbulen etxolak.

Bideak birjartzea: tutuaren trazadurak ukitutako bideetan zoruak legar artifizialarekin birjartzea proiektatu da, gaur egungo bidea osatzen duenaren antzekoa, azalera osoan zanga itxitakoan Proctor Aldatuaren sakontasun trinkoaren ehuneko 100ean, 20 cm-ko lodierarekin eta azaleko tratamendu hirukoitzarekin. Ukitutako arekak ordeztu egingo dira.

Ureztapen sarea zenbait azpiegiturekin gurutzatzea (errepideak eta trenbideak): trenbidearen, AP-68 autobidearen, A-1 autobidearen eta N-124 errepide nazionalaren azpitik igarotzea proiektatu da, 400 mm-ko diametroko altzairuzko tutuarekin zulo horizontala eginez. "Hinken" sarrerak eta irteerak kasu guztietan planteatu dira Natura ondarearen eta biodibertsitatearen apirilaren 13ko 42/2007 Legean identifikatutako habitatetatik urrun, baita emarietatik gertuko lur edo drainatzea horietarantz egin dezaketen eremuetatik urrun ere.

Tokiko errepideetan aire zabalean gurutzatzea proiektatu da, zangak ireki eta itxiz, ureztapen sarea hormigoizko tutu baten barruan babestuz, zoruaren kotara arte hormigonatuz eta errepideko aglomeratu asfaltikoko zoruak birjartuz.

Ureztapen sarea ibai sarearekin gurutzatzea: guztira sare hidrografikoarekin 28 aldiz gurutzatzea aurreikusi da. Tutua ibai sareko bigarren mailako erreken azpitik igarotzeko 2 metroko sakonerako indusketa egingo da erreka mailatik, 250 mm-ko diametroko/ PT 16 Atm-ko PVCko hodi bat jarri 300 mm-ko diametroa daukan hormigoizko beste tutu baten barruan; estaldura dago tutuaren 20 sorgailuaren goiko aldearen eta erreken emariaren mailaren artean, 1,50 metrokoa, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eskakizunak betez, 2018ko uztailaren 12ko idatziarekin bat etorritik. Hodia jarri ondoren, erreken emaria birjarriko da, ustiapeneko material berberarekin, eta gutxienez lursailaren 50 cm-ko loditasuna emango zaio, tutua HA/25-P-20-lla hormigoiarekin babestuz zulatutako gainerako zangan.

Tutua Zadorra ibaiaren azpitik igarotzeki dagokionez, lur azpiko zulo horizontal baten bitartez egitea proiektatu da, 400 mm-ko diametroko altzairuko tutuarekin (hinka), Armiñongo (lurzati urbanoa) 1 poligonoko 1485 lurzatiaren eta Erriberabeitiko 1 poligonoko 2023 lurzatiaren (landa lurzati) artean. Hinkaren sarrera eta irteera Natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko apirilaren 13ko 42/2007 Legean katalogatutako habitatetatik kanpo planteatuko dira beti, baita emarietatik gertuko lurretatik edo drainatzea horietarantz egin dezaketen eremuetatik kanpo ere.

Hinka bidezko gurutzaketa zona irudi hauetan irudikatu da:



Proiektatutako ureztapen sistemak hinka bidez Zadorra ibaia gurutzatuko duen eremuaren ingurunea (kolore gorriz grafiatua).

Ingurumen agirian adierazi bezala, iparraldeko muturrean hinkara sartzeko putzuaren posizioa zereala landatzeko eremu batean dago, landaredia naturaletik 10 metro baino gehiagora. Bestalde, hinka ateratzeko putzuaren kokapena, hegoaldeko muturrean, nekazaritzako lurretan dago, landaredia naturaletik 5 metrora baino gehiagora.

Zadorra ibairen emariaren hondoko kota 454 metrokoa da, eta zuloa 452 metroko kotara egitea proiektatu da, 2 metroko kota gorri edo sakontasunarekin emariaren azpitik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren betekizunak betez eta ibai ertzeko landarediari kalterik egin gabe.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Naturgune babestuak jarduketa arean eta ingurumena babesteko beste figura batzuk:

3. eremua-Zadorra ibaiko ureztapen sarearen banaketa proiektua, Armiñón, Estavillo eta Ribaguda herrietan, "Puente Nuevo" ureztatzaileen elkarteak sustatutakoa, Arabako lurralde historikoaren hego-mendebaldean dago, Erriberabeitia, Armiñón eta Berantevillako udal murgarteetan. Kokapena hurrengo irudietan ikus daiteke.



3. eremua-Zadorra ibaiko ureztapenaren banaketa sarearen kokapena (urdinez), Araban

3. eremua – Zadorra ibaiko ureztapenaren banaketa sarea (urdinez), Erriberabeitia, Armiñón eta Berantevilla udalerrietan

Arabako haranetako ureztapen sarea hobetu eta modernizatzeko Proiektua, 3. Eremua, Zadorra ibaia, Zadorra ibaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) inguruan dago (ES2110010). Martxoaren 17ko 35/2015 Dekretuak Arabako lurralde historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zituen, tartean Zadorra ibaia; hala, kontserbazio neurriak ere onartu ziren.

Zadorra ibaiko KBE definitutako babesaren elementu gakoak, espazioaren ezaugarri nagusi diren balioen ordezkagarri direnak, eta arreta berezia behar dutenak, honako hauek dira:

- Ibai sistema.
 - Ibai habitatak.
 - Bisoi europarra (*Mustela lutreola*).
 - Igaraba euroasiarra (*Lutra lutra*).
 - Arrain komunitatea, zenbait espezierekin, esaterako loina (*Parachondrostoma miegi*), errutilo hegatsgorria (*Achondrostoma arcasii*), mazkar arantzaduna (*Cobitis calderoni*), amuarrair arrunta (*Salmo trutta fario*) eta ibai kabuxa (*Salaria fluviatilis*), besteak beste.
 - Ibaietako hegazti fauna, esaterako martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta uhalde enara (*Riparia riparia*), besteak beste.
 - Apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*).
 - Naiadeak: *Potomida littoralis*, *Unio mancus* (edo *Unio elongatulus*) eta *Anodonta anatina*.
 - Mehatxatutako flora amenazada eta interesekoa, esaterako *Ranunculus auricomus*, *Berula erecta*, *Pentaglotis sempervirens*, *Narcissus pseudonarcissus*.
- Ukituko litzatekeen eremua, bestalde, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan “galzorian” eta “kaltebera” kategorietan kalifikatutako espezie batzuen interes bereziko eremua da.
- Bisoi europarra, *Mustela lutreola*. Kudeaketa plana azaroaren 7ko 332/2003 Foru Aginduen bidez onartu zen. 142. ALHAO, 2003ko abenduaren 5koa. Espezie hori “Galzorian” kategorian sartu du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak.
 - Igaraba, *Lutra lutra*. Kudeaketa plana urriaren 27ko 880/2004 Foru Aginduen bidez onartu zen. 136. ALHAO, 2004ko azaroaren 24koa. Espezie hori “Galzorian” kategorian sartu du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak.
 - Ibai kabuxa, *Salaria fluviatilis*. Kudeaketa plana ekainaren 12ko 351/2002 Foru Aginduen bidez onartu zen. 75. ALHAO, 2002ko uztailaren 5koa. Espezie hori “Galzorian” kategorian sartu du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak.

— Mazkar arantzaduna, *Cobitis calderoni*. Kudeaketa plana apirilaren 18ko 340/2007 Foru Agindua bidez onartu zen. 57. ALHAO, 2007ko maiatzaren 11koa, eta 63. ALHAO, 2007ko maiatzaren 25ekoa. Espezie hori "Galzorian" kategorian sartu du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak.

— Uhalde enara, *Riparia riparia*. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretuaren bidez onartutako kudeaketa plana. 73. ALHAO, 2000ko martxoaren 27koa. Espezie hori "Kaltebera" kategorian sartu du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoak.

Arabako haranetako ureztapen sarea hobetu eta modernizatzeko Proiektuak, 3. eremuan Zadorra ibaiari dagokiona, zeharkako eragina dauka Zadorra ibaiaren KBE, ibai hori gurutzatzean hinka baliatuko baita, katalogatutako habitatak okupatzea saihestuz. Horrez gain, ureztapen sare horren trazadurak eragina izango du babestutako espazio natural horren babes zona periferikoaren 1,1057 ha-ko azaleran; hortaz, obrek bete egin beharko dute Habitat Zuzentzarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluetako eta 42/2007 Legearen 46.3 eta 46.4 artikuluetako prebentzio araudia.



Ureztatzeko banaketa sarea (lerro granateak), Zadorra ibaiko KBE (lerro gorriak) eta aipatutako KBE horren babes zona periferikoa (kolore laranja).

Bidenabar, jardun esparruaren zati bati, hain zuzen ere Zadorra ibaiarekin bat datorrena, 51. Paisaia Bikainen barruan dago, "Zadorra behealde", Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoaren arabera, Diputatuen Kontseiluaren 829. Erabaki bidez onartutakoa, 2005eko irailaren 27an.

1.3. Aztertutako aukerak:

Ingurumen ebaluazioa egiteko aurkeztutako dokumentazioan sustatzaileak azaldu duenez, ureztapena hobetu eta modernizatzeko itenbidearen definizioan zenbait alternatiba aztertu dira. 0 aukera baztertu egin da jarraian deskribatuko diren arrazoiak direla eta:

"0" aukera (ez da hautatu):

Gaur egun, "Puente Nuevo" ureztatzaileen elkarteak ur emakida baimendua dauka Zadorra ibaian, baliabide hori aire tutuekin baliatuz; horrek kostu handia eragiten du langileei eta mantentze lanei dagokienez, eta eragotzi egiten du existitzen diren garraio azpiegiturak gurutzatzea (errepide sarea eta trenbide sarea).

Ingurumenaren ikuspuntutik, ura ponpaketa ekipamenduekin ateratzen da eta horrek sorrazten duen zaratak kalte egin diezaioke aztertzen den eremuko faunari, baita kalte handiagoa ibai ertzeko landarediari ere, hartze eta ponpaketa ekipamenduek espazioak okupatzearen ondorioz.

Bestalde, gaur egun Zadorra ibaiko uretan *Ralstonia solanacearum* izeneko bakterio bat garatzen da. Gram-negatiboko lurreko bakterio bat da, landareen patogenoa; xilema kolonizatzen du eta hainbat landare zimeltzea dakar, tartean patata; tuberkulua usteltzea eragiten du. Horrenbestez, alternatiba honek mugatu egiten du kontsumorako patata ekoiztea, Zadorra ibaitik eskuragarri dagoen ureztapen uraren kalitatea dela eta.

“1” aukera (ez da hautatu):

Aukera honek Arabako haranetako ureztapenak hobetu eta modernizatzeko Proiektua (3. eremua) garatzeko zenbait diametroko tutu lurperatuak instalatu behar izatea eragingo luke, baita ur harguneak ere, ureztapena jasoko luketen finketan.

Kasu honetan, ura eskusiboki Zadorra ibaitik hartzea aurreikusi da, eta, hortaz, *Ralstonia solanacearum* bakterioak laboreetan eragindako kaltea mantendu egingo litzateke, baita Natura 2000 Sarea espazioan ponpaketa zuzenaren ondoriozko dependentzia estuagoa ere.

“2” aukera (ez da hautatu):

Alternatiba honetan “Ríorrojo - Berantevilla” ureztatzaileen elkartearen instalazioetan soberan geratutako baliabide hidrikoak erabiltzea aztertu da. Ureztatzaileen elkarte horrek ura ureztatzeko aprobetxatzen du, bai El Barrancal urtegian biltegitratutako ura (Trebiñu mugartean kokatutakoa), bai Ayuda ibaitik hartutakoa.

3. eremuko ureztapen banaketaren sarearen konexioa egiteko dagoeneko existitzen den ureztapen sarearekin konektatu beharko litzateke, Berantevillan dagoena; hala, ureztapen uraren kalitatea hobetu egingo litzateke gaur egungo egoerarekin alderatuta.

Alternatiba honek Zadorra ibaian “Puente Nuevo” ureztatzaileen elkartearen emakidararako baimendutako emaria “Río Rojo – Berantevilla” ureztatzaileen elkarteari lagatzea proposatu da, emakidak multzokatuz ura hartzeko puntuan, Zadorra eta Ayuda ibaiak elkartzen diren lekuan, koordenatu hauetan: X=509.208, Y=4.725.371.

“3” aukera (ez da hautatu):

Arabako Haranetako Ureztapenak Hobetu eta Modernizatzeko Proiektuan baliabide hidrikoak ureztapenerako baliatzea proposatu zen, Barron urtegian aldeztu aurretik biltegitratutakoa; urtegia oraindik eraiki gabe dago.

Irtenbide honek ingurumen inpaktuaren adierazpena dauka, aldekoa, baina aurretik aztertutako proposamenek baino kalte handiagoak eragingo lituzkeela ulertzen da.

Bidenabar, Barron urtegiko eraikuntza proiektua ez dagoenez eginda, eta egiteko arazoak eragiten dituen, beste irtenbide bat proiektatu da Arabako haranen zona hartzen duen ureztapen orokorrean dagoeneko aurreikusitako lurzatiatarako.

“4” aukera (hautatutakoa):

Aukera honetan Zadorra ibaiko hartune bakarra aurreikusi da, Armiñón herrigunetik 300 metrora ibaian behera, Zadorra ibaiko emakida izateagatik, El Barrancal (Trebiñu) urtegitik hartutako hornidurarekin uztartuz; horretarako, ACUAESek proiektatutako banaketa sarea moldatuko da, eskuragarri dauden baliabide hidrikoetara egokitzeko, Barrón urtegia (eraiki gabea) kontuan hartu gabe. Nabarmendu behar da urtegi hori eraikiz gero, ur hartunea bertan biltegitratuko diren baliabide hidrikoetatik hartuko dela.

Azkenik, aukera hau hautatu da hurrengo arrazoiak direla medio, ingurumen agirian sustatzaileak azaldu duenez:

1. Gaur egungoa baino diametro handiagoko banaketa sarea izatea, lurzati bakoitzaren ureztapen emaria areagotuz, Zadorra ibaiko hargunean baimendutako emaria areagotu gabe.
2. Urteko gastua saihestea, tutuak muntatu eta desmuntatzeko lanen kostuan, bide, finka, areka eta bestelakoen ertzetatik.
3. Ureztapenaren banaketa sarea lan eremu osoan instalatzea, garraio azpiegiturak saihestuz, esaterako autobia edo trenbide sarea.
4. Gaur egun ponpaketan behar den energia kontsumoa murriztea.
5. Landaredi naturaleko eremu eta erreken igarobideetan kalteak murriztea ACUAESek proiektatutako hasierako trazadurari dagokionez.
6. El Barrancal urtegitik iritsitako hornidurarekin, uraren kalitatea hobetzea eta lehen aipatutako bakterioa, Zadorra ibaian bizi dena, elikadura katera eta laborantza lanetara kutsatzea saihestea (nahiz eta ez den kaltegarria giza osasunerako).

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko azaroaren 27an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
SEO Bird Life	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Berantevillako Udala	
Armiñongo Udala	
Erriberabeitiko Udala	
Berantevillako Administrazio Batzarra	
Lacervillako Administrazio Batzarra	
Ribagudako Administrazio Batzarra	
Armiñongo Administrazio Batzarra	
Estavilloko Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/141 espedientean eta www.araba.eus web orrian daude jasota):

- Eusko Jaurlaritzako Ondare Natural eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak emandako txostenean, proiektuaren laburpena egin ondoren zenbait gogoeta jaso ziren: Ibai gurutzaketetan izango diren inpaktuen deskribapena hobetu daitekeela uste da. Ondorioztatu da ingurumen agiriak ikuspegi orokorra eskaintzen duela, eta obrak egiteari buruzko xehetasun gehiago izateko zenbait ohar azaldu dira, baita pasaia eta ekologia berrezartzeko neurriak ere, eta espezie zaurkorren aldi kritikoak zehazteko.

Zadorra ibaiko KBEren gaineko kalteei dagokienez, lur azpiko hinka bidez gurutzatzea positibotzat jo den arren, emari eta ibai ertzetan kalterik ez egitea bermatzeari buruzko oharra jaso dira, gurutzatzean zein paralelismoetan. KBEren antolaketa eta kudeaketa arauditik eratorritako baldintzak betetzearen garrantzia nabarmendu da.

Horrez gain, El Barrancal urtegia Zadorra ibaian dagoen *Ralstonia solanacearum* bakterioarekin ez kutsatzea bermatzearen garrantzia ere nabarmendu da.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak txosten tekniko bat igorri du, Euskal Kultura Ondareko Zentroak egina. Adierazienez, proiektuak Donejakue Bidearen barruko ibilbideari eragin ahal dizkion balizko kalteak baino ez dira jaso ingurumen agirian. Adierazienez, proiektuko obrak egiten diren bitartean, ingurumen agirian erromesentzat bide alternatiboa eta eremua seinalatzatzea aurreikusi da, eta birjartzean, baita Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailari baimena eskatzea ere.

Azalduenez, proiektuko esparruan aitorpena lortzeke daukaten zona arkeologikoak daude (dokumentazio grafikoa aurkeztu da):

- Armiñongo aztarnategia.
- El Somo Este herrixka.
- Sucuzoko etxola hondoa.
- San Julián finkako kokagunea.
- Ribáñez.
- Done Erromango tenplua eta nekropolia.
- Ribáñezeko etxola hondoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearekin bat etorritik, eskatu da “eremu arkeologikoan aldaketak eragin ditzakeen edozein jardura egin aurretik, ikerketa arkeologiko bat egiteko, eta obrak egiteko lizentzia lortzeko, baldintza hori betetzea nahitaezkoa izango da”.

Horrez gain, adierazi da “San Andresgo Ermita” ustezko zona arkeologikoari dagokionez (189. EHAA, 1997ko urriaren 3koa), 6/2019 Legearen 65. artikulua betez, alde aurreko azterketa arkeologikoa egin beharko dela, eta, horrekin, “Arabako Foru Aldundiak ebatzi egingo duela proiektu arkeologikoa egitea beharrezkoa den”.

Azkenik, Iter XXXIV bide erromatarraren kasuan (Astorgatik Bordelera), egiaztatzeko zundaketa arkeologikoak egin beharko lirarteke, obren fasea hasi baino lehen, eta positiboak izanez gero ukitutako eremuaren indusketa sistematikoa egin beharko litzateke.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan.” Era berean, hau dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi du indarrean dagoen 6/2019 Legea kontuan hartu behar dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Ondareari buruzkoa. Proiektuan antzeman da Donejakue Bideari kalte egingo diola (ondasun kultural kalifikatua, orain babes berezikoa); hortaz, 2/2012 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da (19. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa). Proiektuaren kalte errealak ezartze aldera, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroarekin kontsultatu beharko lirateke eremu horretako datu arkeologikoak. Azkenik, azaldu da 2014. urtean azterketa arkeologiko batzuk egin zirela proiektuaren zonan (Qark enpresa).

- Arabako Foru Aldundiaren Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Zerbitzuak emandako txostenean dakar, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan ageri den moduan, proiektuak sei aldiz gurutzatzen duela Donejakue Bidea, eta, hortaz, 2/2012 Dekretuan ezarritakora egokitu beharko dela. Horrez gain, alegazioen txostenean jakitera eman denez, “bide historikoetan, bideetan eta pistetan zerbitzuen azpiegiturak eta hodiak egitea baimendu ahal izateko baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, eta proiektu osoa aurkeztu beharko da, eragindako inpaktua eta bidea behar bezala birjartzeko hartu beharreko neurriak aurreikusiz.”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, proiektuaren laburpena egin ondoren, zenbait gogoeta jaso ditu txostenean:

Proiektatutako obra nekazaritzako lurrian aurreikusi da, eta, horrenbestez, Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSen tipifikatutako lursaili egingo die kalte, bestek beste, “Trantsizioko Landa Paisaia”, “Balio Estrategiko Handia” eta “Baso - Mendi Urria”.

Kategoria horietarako aurreikusitako erabilaren artean nekazaritza ustiatzei lotutako eraikuntzen erabilera dago, esaterako ureztapenak, salbu eta “Baso - Mendi Urria” kategorian, kasu horretan ez baita desiragarritzat jo, nahiz eta salbuespen modura nekazaritza arloko organo eskudunak onar dezakeen. Kasu guztietan PEAS txostenean (Nekazaritza Sektoreko Kaltea Ebaluatzeko Protokoloa) jasotako neurri zuzentzaileak gehitu beharko lirateke; hortaz, Nekazaritza Zuzendaritzak argudiatu du “beharrezkotzat jo dela kaltetuko diren lursailen kategoriak definitzea, obra fasean zein proiektuaren ustiapen fasean, bakoitzak kaltetutako azalera neurria berariaz neurtuz”.

Bidenabar, proiektuak landa bideei eta horiek ordeztuari eragindako kalteari dagokionez, adierazi da “edozein jarduketa kaltegarri egin aurretik kasuan kasuko txosten tekniko eskatu beharko zaiola Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbituari”.

- URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txostena eman du 2019ko abenduaren 2an. Han, honako hau adierazten du: “zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, 21/2013 Legeak ezarritakoaren konforme”.

2020ko urtarrilaren 22ko data duen bigarren txostenean, proiektuaren laburpena egin ondoren eta Zadorra ibaiaren eta Riorrojo ibaiaren urak baliatzeari lotutako zenbait ohar plazaratu ondoren, proiektuak eragindako inpaktuekin eta ur hornidura eta balizko isuriekin batera, honako hau ondorioztatu zen:

- “Puente Nuevo” ureztatzaileen elkarreak eta “Río Rojo-Berantevilla” ureztatzaileen elkarreak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aurrean eskatu beharko dute gaur egun indarrean daukaten emakidaren ezaugarriak aldatzeko, aztertutako proiektuan aurreikusitako uren erabilera egin ahal izateko.

- Hinka bidez Zadorra ibaiaren azpitik igarotzeari dagokionez, URAtik izapidetzen ari diren obren baimenari ezarriko zaizkien aginduak ikusi beharko dira (AO-A-2019-0220 esp.).

- Obrak egiteko inguruko emariren bateko edo balizko iturburu/putzuetako aprobetxamenduak planteatuz gero, orduan Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren administrazio baimena beharko da aldeztu aurretik.

• Bai jabari publiko hidraulikoan, bai polizia eremuan (100 metro) egin beharreko jarduketak egiteko zein hondakin urak lursail eta ibilgu publikoetara isurtzeko ezinbestekoa izango da alde zurratik eskudun den arroko erakundeak (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) baimena ematea; Uraren Euskal Agentzian izapidetu beharko da.

3. Ingurumen inpaktu nagusiak

Ingurumen agirian proiektuak eragingo lituzkeen balizko inpaktuen ebaluazioa egin da, eta ingurumenean obren fasean zein ustiapen fasean eragingo lituzkeen ondorioei erreparatu die. Inpaktuen karakterizazio eta balorazio matrizean ondorioztatu da obren fasean, ingurumen integratzearen neurri egokiak hartu ezean, geologian eta lur azpiko uretan, lurrun, azaleko uren kalitatean, intereseko landaredian eta faunan sorraraziko liratekeen ondorioak moderatuak izango liratekeela. Nolanahi ere, ingurumen integratzearen neurriak hartuz gero, inpaktu horiek bateragarri gisa tipifikatuko lirateke. Gainerako ingurumen elementu edo balioei dagokienez (babestutako espazio naturalak, klima aldaketa, paisaia, kultura ondarea, kutsadura atmosferikoa, kalitate akustikoa, hondakinak sortzea eta mugikortasuna eta iragarritasuna), dokumentu horretan ondorioztatu da inpaktuak bateragarriak izango liratekeela, ingurumen integratzearen neurriak hartu beharrik gabe; hala ere, agirian bertan planteatu dira proiektuek elementu edo balioengan eragingo dituen ondorioak arintzeko ingurumen integratzearen neurriak, elementu edo balio horiek proiektuaren ekintzekin bateragarritzat jo badira.

Ingurumen agiriaren analisiaren zati bat zuzena dela uste da, baina zenbait gabezia antzeman dira. Alde batetik, proiektuak eragin ditzakeen inpaktu nagusi gogorrenak Natura 2000 Sarea Zadorra ibaiaren KBE (ES2110010) eta ibaian "galzorian" egoeran bizi diren lau espeziengan (bisoia, igaraba, mazkar arantzaduna eta ibai kabuxa) eta "kaltebera" egoeretan bizi den espeziengan (uhalde enara) aurreikusi dira. Hain zuzen ere, inpaktu horiek obrak egiteko aldian sor daitezke, egin beharreko jarduketetan bai ibaitik gertu, Ribagudako hego ekialdean, bai Zadorra hinkan bidez gurutzatzean, Ribaguda iparraldean proiektatutakoa (gauzatze akastuna).

Aldiz, Zadorra ibaian hargune zuzenak eragindako inpaktua txikiagoa da gaur egungo egoera edo jardunaren aurrekoa kontuan hartuz gero; izan ere, gaur egun hargune hori modu legalan egiten da, existitzen den emakida batean oinarrituz. Bestalde, sistema berriarekin uraren zati bat existitzen den El Barrancal urtegitik etorriko da, eta, hala, hargune zuzenaren eragina partzialki arinduko da.

Garrantzitsua da nabarmentzea inpaktu tipologia hau Arabako haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko Proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozeduraren esparruan ebaluatu dela; izan ere, jarduketa hauek proiektu horren parte dira, eta orain, hirugarren eremuaren proiektua garatzean, ez da aldaketa nabarmenik egin Natura 2000 Sarean eragindako kalteei dagokienez, salbu eta Trebiñun, El Barrancal urtegiarekiko konexio eta hodian trazaduraren zati bati dagokionez (ingurumen inpaktuaren adierazpenean edo IIAn Barron urtegiarekiko konexioa aurreikusi baitzen).

Nolanahi ere, ingurumenean ondorio negatiboak izan ditzaketen proiektuko balizko jarduketa guztiak ingurumen inpaktuko txosten honen ingurumen baldintzen xede dira, hori dena balizko ingurumen ondorioak zuzendu eta saiheste aldera.

Nolanahi ere, eta ingurumen inpaktuko txosten honetan ezarritako neurriez gain, jarduketa Natura 2000 Sareko zaintza helburuekin bateragarria izatea bermatzeko, eta ingurune naturala oro har babesteko, ezinbestekoa da ingurumen inpaktuko adierazpenean ezarritako baldintzak betetzea [2018ko azaroaren 13ko Ebazpena, Biodibertsitate eta Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiarena, Arabako haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zuena], ingurumen lehengoratu eta paisaia integratzeari, babestutako faunako espezieetarako aldi kritikotik kanpoko jarduketak gauzatzeari, landaredi naturaleko esparruak saihesteko hodi sarea diseinatzeari, hartuneetan Ebroko Konfederazio Hidrografikoa ezarritako baldintzak betetzeari edo ezarriko diren baldintzen ingurumen zaintzari dagokienez.

Eraginak Natura 2000 Sarean eta lotutako basa fauna espezieengan:

Ingurumen inpaktuaren adierazpenean eskatutakoaz gain, nolanahi ere, Zadorra ibaiko KBEn ondorioak eragin ditzaketen hodiatarako kaltetutako lursailen ingurumen lehengoratze sakona egin beharko da, baita horri dagokionez beharrezko ingurumen integrazioko neurri oro ere.

Alde batetik, positiboki baloratu da Zadorra ibaia hinka bidez gurutzatuko dela, baina, nolanahi ere, bermatu egin beharko da hinkaren sarrera eta irteera putzuetan ez zaiela ibai ertzei kalterik egingo, ezta 92/43/CEE Zuzentarauan oinarrituz katalogatutako erkidegoko intereseko habitatei ere. Bidenabar, hodiekin kalteak saihestu beharko dituzte KBEn, hain zuzen ere, hodiekin KBE horri edo zona periferikoari eragiten dioten hodian eremuetan.

Azkenik, ingurumen agirian KBE espazioan aplikagarria den araudia jaso arren, ez da berraz ageri martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuko 2. R.5 erregulazioa; bertan adierazi denez, “ureztapen berriak instalatzeko proiektuetan (...) ez da jabari publiko hidraulikoa okupatuko, ezta babes zortasuna ere; libre geratu beharko dira lur naturala aldatzeko edozein esku hartzerako (...)”. Ureztapen hodiaren trazaduraren kasuan, Ribaguda udalerriaren hego ekialdetik doana, ingurumen agirian bildutako informazioa dela bide, kalteak eragiten zaizkio KBERi eta proiektua berrikusi egin beharko da, laborantzetatik doazen hodiekin emarian edo ibai ertzean kalterik ez egitea bermatuz.

Nolanahi ere, eta berme are handiagoa izateko, eskaera egin da, eraikuntza proiektuaren behin betiko definizioaren aurretik, proiektuak kaltetutako esparruen paisaia integrazio eta lehengoratze proiektua idatz dadin; gainera, Zadorra KBEn eragin daitezkeen balizko kalteak zehatz azaldu eta justifikatu beharko ditu (jarduketaren kronograma, Zadorra ibaia hinkan gurutzatzea, kalteak ibaiaren jabari publiko hidraulikoan, lehengoratzeak, etab.). Proiektu hau Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aztertu eta baliozkotu beharko du.

III. eremuko ureztapen proiektuak sartzen dituen berritasunak (IIAn ebaluatu ez diren inpaktuak, jarduketak ez direlako proiektu orokorrean sartzen):

Arabako Haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektuari dagokionez proiektu honek ezarritako aldaketak eta, hortaz, ingurumen ebaluazioan aztertu ez direnak dagokion II Eren prozedura arruntan, batez ere 3 eremuko hodian sarea “Río Rojo – Berantevilla” ureztatzaileen elkartearen instalazioko baliabide hibridikoekin lotzeari buruzkoak dira, El Barrancal urtegian biltegitutako uretatik.

Horrez gain, 3. eremuko ureztapen hodian trazadurak partzialki aldatu dira, eta Zadorra ibaia gurutzatuko da, hinka baten bitartez izan arren (zulaketa bideratua, ibaian eta horri lotutako ingurumen balioetan, esaterako ertzeko landaredian edo faunan, eragindako kalteak murrizten ditu).

Proiektu orokorrean ezarritako sare nagusiaren eta ureztapen sarearen aldaketari dagokionez, baloratu behar da ingurumenaren ondoretarako aldaketak garrantzi txikikoak direla eta hodiak labore eremuetatik sartzen direla eta gurutzagune batzuekin sare hidrografikoan, zeinen elkarguneak uste baita egokiak direla ingurumen ondoretarako.

Txosten hau eman aurretik, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikariek proiektuan aurreikusitako 28 gurutzaketak bisitatu zituzten, ingurumen agirian identifikatutakoak (30. orrialdeko 2. taulan); ikusi zutenez, Zadorra ibaia hinka bidez gurutzatzean salbu, gainerako ia guztiak, zangak agorraldi garaian egin beharko dituztenak, laborantza finka, ubide eta hustubideen arteko errekaekin bat datoz, finka eta lurzati bideen artean. Jarduketa horiek, nolanahi ere, behar bezala ordeztu beharko dira.

Gehienetan, esan bezala, ez da ingurumen arazorik egongo ez dagoelako landaredi eta ingurumen balio nabarmenik, baina zenbaitetan ingurumen integrazioko neurriak zorrotzago ezarri beharko dira, bereziki landaredian kalteak saihesteari dagokionez, eta, gertatuz gero, ingurumen eta paisaia lehengoratzeko beharri dagokionez.

4. Ingurumen baldintzak.

“Arabako haranetako ureztapenak hobetu eta modernizatzeko proiektua (3. eremua. Zadorra ibaia) Armiñón, Estavillo eta Ribagudako eremua Zadorra ibaitik eta Riorrojo ibaiaren instalazioetatik” txosten hau, bertan aurreikusitako obren eta jarduketa eremu zehatzari dagokionez, 2018ko azaroaren 13ko Ebazpena betetzearen mende dago, Biodibertsitate eta Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiarena, Arabako Haranetako (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. eremuak) eremu ureztagarriko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egin zuena.

Proiektua, halaber, emariko administrazio organoak ezarritako emari ekologikoen araudia erabat betetzearen mende dago, baita arlo hidraulikoan ezarriko diren gainerako baldintza arautzaileak betetzearen mende ere. Ondorio horietarako, bermatu egin beharko da ureztapena hobetzeak ez duela esan nahi Zadorra ibaian ur bolumen handiagoa modu zuzenean hartuko denik, ezta, horrenbestez, indarrean dagoen emakida areagotzea ere.

Halaber, sustatzaileak ingurumen adierazpen erraztu hau izapidetzeko prestatutako ingurumen agiriko neurriak hartu beharko dira, eta, horrez gain, jarraian azalduko diren babes neurriak eta neurri zuzentzaileak:

A) Obrak hasi aurretik sustatzaileak abisua emango dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egin dadin eta ingurumen eraginari buruzko txosten honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatu dadin. Eraikuntza lanak hasi aurretik, proiektuak zuhaixka edo zuhaitz landarediaren eta azaleko hidrologia eremuen gainean (Zadorra ibaiko eta ibaiadarretako KBE) eragiten dituen eremuetan proiektua gauzatzeak eragingo dituen azalaren ingurunearen mugaketa zehatza eta seinalamendua egingo dira. Aldez aurreko zuinketa eta seinalatze horretan presente egon beharko dute obra zuzendaritzak, kontratako obra buruak, Ondare Naturaleko Zerbitzuaren teknikari batek eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari batek. Arreta berezia jarriko zaie txosten honen ondorioetarako ingurumen sentiberatasuneko eremu izendatutako eremu hauei:

- Zadorra ibaiaren KBE gurutzatzeko aurreikusitako lur azpiko hinkaren esparrua.
- Zadorra ibaiaren alboan, Ribaguda herriaren hego ekialdetik doan ureztapen hodiaren trazadura. Eremu horretan hodia, ahal dela, laborantza eremuetatik sartuko da, ingurumen intereseke natura landarerik gabea.
- Zadorra ibaiko KBEn sare hidrografiko afluenteak gurutzatu behar diren gainerako aldiak.

B) Eraikuntza proiektua behin betiko onartu aurretik, ingurumena leheneratzeko eta paisaia integrazteko proiektu bat aurkeztuko zaio ingurumen organoari. Proiektuak xehetasunez zehaztuko ditu egokitzen geomorfologikoari, landareak leheneratzeari, lurzorua prestatu eta ereiteari eta aurreko paragrafoan adierazitako ingurumen sentiberatasuneko eremuen inguruan burutu beharreko beste neurri batzuei lotutako obra unitate guztiak.

Ingurumen zaharberritze eta paisaia integrazioari dagokionez, proiektuak gutxienez honako lan hauek aurreikusi beharko ditu:

- Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guztiak behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.
- Kalitatezko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,4 metrokoa, eta ondoren ukituak ematea.
- Lurra landu eta harrotzeko eta ondoren xehatzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko eta hidroereiteko egoki prestatzeko.
- Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako, soropil espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, erasango den eremuko klimarako eta lurzoru motarako egokia, eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onztat eman beharrekoa.

— Landaketak egitea espezie autoktonoekin, egindako lanak paisaian txertatzeko.

— Bermatu beharko da zurezko landare estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpen aldian (landaketatik 2 urtera), behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Honako hauek aurreikusi beharko dira: defizit hidrikoa den garaietan ureztatzea, landare hilak ordeztzea, zurkaitzak eta oinarriko babesak ordeztzea, ongarriztatzea eta sasiak kentzea eta abar.

C) Hinka proiektatu edo zulo bideratuan aurreikusitako jarduketan inguruan Zadorra ibaiaren ES2110010 KBEren azalerako muga zuinkatuko da, eta muga hori errespetatu egingo da edozein zulo edo landareak aldatzeko, Natura 2000 Sareko espazioa okupatzea saihestuz.

D) Ibai-erreken bazterretan hodiekin gurutzatzeko obrak egiten direnean, eraikuntza prozedura bereziak erabili beharko dira ahalik eta lur mugimendu gutxien eragiteko eta natura aldetik balio handiena duten guneen gaineko eraginak saihesteko. Honako arau hauei jarraituz egin beharko dira lan horiek:

— Sare hidrografikoan aurreikusita dauden gurutzaguneak zuhaitz edo zuhaixkarik gabeko lekuetan egingo dira lehentasunez, betiere makina txikiekin, "laneko kaleak" ez dezan 6 metrotik gorako zabalera eduki. Gune horiek aldeztu aurretik identifikatu eta mugatuko dira, obrako bisita baten bitartez, eta bisita horretan honako hauek izango dira: obrako zuzendaritza, sustatzailearen aldetik; kontratuko obra burua, eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari bat.

— Ibaierantz horietan ezingo da obrako materialik biltegiratu, ez eta lurrik edo indusketa materialik metatu ere.

— Ibaierako landarediari dagokionez, lanak hasi baino lehen zegoen antzeko egoera lortzeko, erriberako berezko espezieez landareztatuko dira lanen eraginpeko ibai ertzak.

— Ibaierantzak babesteko eta ibaiko ezpondak egonkortzeko egiturak, behar izanez gero, ingurunean egokituko dira. Horretarako, zuloak landare lurrez beteko dira eta bertoko zuhaitz, zuhaixka eta belar landaredia ezarriko da landaketan eta aldaxkatzeen bitartez.

E) Proiektatutako egitura iraunkorreki dagokienez, balbulen etxolak eta horiei lotutako instalazioen multzoa, esaterako, eraikitzean ez dira inguruko eraikin tradizionalekin erkatuta desberdinak izan behar; hala, erraz integratzeko materialak eta material kriptikoak erabili behar dira. Paisaia eta hots inpaktua moteltzea errazten duten materialak erabiltzea aurreikusiko da. Kanpoko fatxadak kolore kriptiko batekin margotuko dira, eta akabera matearekin, lursailarekin parekatzeko; ingurunearekin modu fisiografikoan integratzeko beste neurri batzuk aztertuko dira: kabiloiak, landare pantailak, etab.

F) El Barrancal urtegitik iritsitako urak *Ralstonia solanacearum* bakterioarekin kutsatzea saihesteko neurriak hartu beharko dira. Hartara, Zadorra ibaiko hargune zuzenetik iritsitako urak aipatutako urtegitik iritsitakoekin ez nahastea bermatuko da.

G) Hodiak eta ur hartuneak kokatzeko proposatutako lekuetan, landare lurreko geruzak lurzoruko beste geruzetatik bereiz aterako dira. Ahal dela, berehala birbanatuko dira, edo, ezin bada, metatu egingo dira Aldundi honetako ingurumen organoak baimendu beharreko leku batean. Lur metaketan gehieneko altuera 2,5 metrokoa izango da, lurra trinkotu ez dadin, eta sekzio trapezoidalekoak izango dira. Landare lur hori obrak eragindako eta txosten honetako goragoko paragrafoetan deskribatutako gainazaletan landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

H) Mailegu zonak edo hondakindegia erabiltzeko, ingurumen organoaren aurretiazko baimena jaso beharko da, hartara kokalekuen egokitasuna ebaluatzen eta ingurumenaren gaineko inpaktuak arindu eta zuzenduko dituzten lehengoratzeko neurriak ezartzeko.

I) Saihestu egingo da solidoak ibai sarera herrestatzea, eta iragazki hesiak edo dekantazio baltsak ezarriko dira hori eragozteko, beharrezkoak badira. Makineria garbitzeko prozesuetan arreta neurri zorrotzak hartuko dira. Berariaz galarazten da hondakinak, kutsa dezaketen substantziak eta landaretza hondarrak ur ibilguetara botatzea. Hondakindegia baimendun batera eramango dira, eta, hala behar denean, kudeatzaile baimendun batek jasoko ditu.

J) Ez da zerbitzu gunerik, makineria parkerik eta produktu kutsatzaileen biltegirik jarriko txosten honetan definitutako ingurumen sentikorreko aldeetan, ezta 500 urteko birgertatze aldiko uholde arriskua duten eremuetan ere.

K) Une oro beteko da txosten honetan aipatutako fauna espezieen kudeaketa planetan ezarritakoa, babes helburuak lortuko direla bermatzeko, batez ere lanak egiteko garaiei eta espezieen sasoi kritikoei dagokienez. Bisoi europarraren kasuan, ugalketarako sasoi kritikoa martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartekoa da. Sasoi horretan ezingo da Zadorra ibaiaren ibilgua zuzenean edo zeharka ukitzen duen eraikuntza lanik egin, espezie horren interes bereziko eremu deklaratu baita.

L) Igaraba urte osoan ugaltzeko gai denez, ez da berariazko aldi kritikorik ezarri espezie horren kudeaketa planean. Proiektuak ukitutako eremuan bizi diren igarabak ugaltzen diren eta umeak hazten dituzten sasoi balizko ukipenak saihesteko, obren hasieraren berri emango zaio Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuari, 30 egun lehenago gutxienez, Zadorra ibaian ikuskapena egin dadin ingurumen sentikorreko aldeetan eta zehaztu dadin ea igarabaren bat ba ote dagoen ugaltzeko edo umeak hazteko sasoiari, eta, behar izanez gero, neurri egokiak ezarriko dira.

M) Sustatzaileak Zadorra ibaiko ur kalitatearen kontrol eta jarraipena egingo du gurutzatzea hinkan egiteko eta Ribaguda herriko hego ekialdeko berehalako ingurunean proiektatutako jarduketek irauten duten bitartean. Horretarako laginak hartu eta aldizka aztertuko dira urak, gutxienez astean behin. Analisisetan, gutxienez parametro hauek erregistratu beharko dira:

- Temperatura.
- pH-a.
- Guztizko solidoak. Solido esekiak.
- Oxigeno disolbatua.
- Eroankortasuna.
- Oxigeno eskari biologikoa (OEB).
- Oxigeno eskari kimikoa (OEK).
- Nitrogeno organikoa eta amoniakoarena (GKN).
- Nitratoak eta nitritoak.
- Guztizko fosforoa (GP).
- Hidrokarburoak, olioak eta koipeak.

Zadorra ibaian ur laginak hartzeko puntuak lursailera aldeztu aurretik egingo den bisitan definitutako dira; bisita sustatzaileak eta ingurumen organoak egingo dute, eta gutxienez bi puntutan jarriko dira: kalte gehien egin ditzaketen jarduketetatik gora eta behera. Hartutako laginen emaitzak ingurumen organo honi eta eskumena duten administrazioei igorriko zaizkio aldian-aldian.

N) Proiektuaren sustatzaileak Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari baimena eskatu beharko dio berariaz "Bidezidor Historikoa" GR-1 eta "Donejakue Bidea" ibilbide berdeak lehengoratzeko; gauzak horrela, foru sailak ibilbideak lehengoratzeko baldintza egokiak ezarriko ditu, betiere urtarilaren 4ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

O) Bideanabarro, landa bideei eta horiek birjartzeko proiektuak eragindako kalteei dagokienez, adierazi da edozein jarduketa kaltegarri egin aurretik kasuan kasuko txosten teknikoak eskatu beharko zaiola Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari.

P) Behin betiko onartu aurretik, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eraikuntza txostenari buruzko txostena eta balorazioa egin beharko ditu, interes arkeologikoko eta/edo kulturalaren alde edo elementuetan izan dezakeen eraginagatik.

Q) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaia biltegitratzeko ontzi estankoa, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabiltakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zaborte baimenduenera eramane beharko dira. Bide zoruak kentzean aterako diren eraikuntza eta eraispene hondakinak 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispene hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena).

R) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

S) "Neurrien eraginkortasun eta betetze mailaren jarraipenari" buruzko ingurumen agiria- ren 9. atalean adierazitakoarekin bat etorritik, komenigarritzat jo da ingurumen jarraipene lana egitea, modu koordinatuan egin beharko dena "Puente Nuevo" ureztatzaileen elkarteeen, sustatzaileen eta Foru Aldundi honen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren partetik. Zaintza hori eraikuntza fasean eta funtzionamenduan jartzeko lehenengo urteetan egingo da, zuzentzeko eta ingurumena leheneratzeko neurrien eraginkortasuna ezagutu eta ebaluatu eta suma daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketan, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako haranetako ureztapenak hobetu eta modernizatzeko Proiektua (3. eremua. Zadorra ibaia): Armiñón, Estavillo eta Ribagudako eremua Zadorra ibaitik eta Rio- rrojo ibaiaren instalazioetatik (Araba) ureztatzea izeneko proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Txostena idaztea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, inguru- men inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 2a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA